



Zintzo mintzo

Dirua. Zer egingo zenuke milioi bat eurorekin?

Zintzo mintzo

Bidali zure argazkia eta erantzuna.
Hurrengo galdera: **OPORRAK**
Oporretan zer egitea gustatzen zaizu gehien?



Aimar Irazabal
7 urte. Ugao

Lekeitiora joan, hango kanpineko etxe bat alokatuko nuke eta hondartzan igeri egingo nuke.



Irati
8 urte


Nik etxea eta terrenoa erosi-ko nituzke, igerilekuarekin eta lore askorekin. Baita txoriak eta katuak ere.



Eric Gil
7 urte. Ziga

Nik bi traktore, borda bat, hamar mendi, fardo-makina eta horrelako makinak erosi-ko nituzke.

Zure txokoa



Urdazubiko Eneko Ariztiari, Zugarramurdiko eskolako lagun guztien partez, aunitz urtez. Gaur Enekok urteak bete ditu. Zorionak, Eneko!

ipuin

AITOR ETA UNAI

Egun batean bi mutiko ikusi nituen. Bi mutikoak berdinak ziren: batek ile beltza zuen, eta besteak ere beltza. Batek sudur handia zuen, eta besteak ere. Batek 8 urte, besteak ere. Batek irakurtzea maite zuen eta besteak ere bai... Mutiko horiek Aitor eta Unai deitzen ziren.

Behin Aitor zuhaitz baten kontra kunkatu zen, eta handik minutu batera Unai kunkatu zen zuhaitz berean. Min handia ukan zuten; baina, hala ere, ibiltzen segitu zuten. Hurrengo egunean, biak futboleko jolasten ari zirela Unai erori zen eta odola egin zuen ezkerreko belaunean. Handik bost minutura Aitor erori zen leku berean, eta berak ere ezkerreko belaunean odola egin zuen; baina, hala ere, futboleko jolasten segitu zuten.

A ZER PAREA KARAKOLA ETA BAREA !!!!!

Eñaut Jauregik ipuin hori bidali digu XINGOLAN argitaratzeko. Eñautek Hendaiaiko ikastolan ikasten du. Askok gustatu zaigu. Mila esker.

Arduraduna: Nagore Etxeberria Pikabea

Egoitza nagusia EGUNKARIA Gudarien etorbidea z/g 20140 Andoain Tlf 943 30 02 22


NAIROBITARRArekin
Amazonia txikira
abenturako asteburu zoragarria

Nola?

aldizkari

lehiaketan parte hartuz

Aldizkaririk onenaren egileak
Arcachonerako bidean



Xingolako

aldizkari lehiaketan kontuan hartuko diren irizpideak

- 1 Ikasleek ikasturte honetan egingo izan behar dute aldizkaria.
- 2 Aldizkariak euskara hutsean egingo dira.
- 3 Formatua ere kontuan hartuko da.
- 4 Diseinuari eta edukiari garrantzi handia emango zaie.
 - Logotipoa • Testua zutabeetan azaltzea • Testua eta argazkiak uztartzea • Atalak bereiztea • Kazetaritza generoak lantzea (albisteak, erreportaiak, elkarrizketak, iritziak...).
- 5 Originaltasuna, txukuntasuna.

Saria

Arcachonerako bidaia 20 lagunentzat
Oharra: adin muga, 12 urte arte